

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Tramite huts bat

Ez zait lo egitea gustatzen. Nire inguruan gehiengoak ohera sartzeko momentua plazerez bizi duen bitartean, niretzat hurrengo egunsentira iristeko tramite hutsa da gaueroko errituala. Zubi ikusezina, gaua, bakartia. Pentsamenduei mugarik gabe ugaltzen eta elkar lotzen uzten diena, epaietatik aske batzuetan, eta juzgu denak dantzan jarrita beste askotan.

Gaua da gure biografia emozionalera txangoak egiteko ate bat, eta nik zabalik izaten dut ia iluntzeror, nire maindirepea paradisu bilakatuz aspaldiko kezkei eta betiko beldurrei. Alegia, nik ere berez gustura egiten dudala lo, loa kentzen didan ezer ez daukadanetan.

Izan liteke hipokondria, eta obulazio garaian nagoen bakoitzean bularra berrehun bat aldiz autoexploratzeko beharra. Edo maite dudana jendea bat-batean galtzeak lekarkidakeen samina irudikatzea. Ikasturte honetan –ere– zenbat asmo handinahi zaputuko zaizkidan aurreikustea. Tapakiarekin sabela estali eta eroso jarri orduko, herenegun goizean administrazioan egitekoak ginen eta azkenean egin ez genuen harekin gogoratzea. Edo, gisa honetako zutabe bat idazteko hari-mutur baten arrantzan hasi eta, arrakastarik gabe, ezinegona biderkatzea zerbait argitaratuko delako zure sinadurapean, eta, gutxienez, duina izatea nahi zenukeelako; esango dute bestela. Denok dugulako egorik nonbait, eta ondorioz nik ere bai.

Zer unibertsala den ahaztua izateko beldurra eta, neurri berean, nola desio dugun guztiok noizbait norbait gurekin akordatzeko zerbait txukun samar egin-esan-sortu-lortu dugula sinestea; lurra zapaltzeko dugun modua zenbaitetan berezia dela sentitzea. Kanpo-onespen horren bilaketak gure buruasuna tantaka-tantaka zulatzen digun arren. Egoak bai baitu errealitatea distortzionatzeko ahal-

mentxoa. Eta, horrela, guk jarrai dezakegu, denboratan, ustez gure ongizate propioarentzat gauzak egiten, egiazki besteek gugatik pentsatzea nahi genukeena eraikitzen ari garen bitartean.

Nola azaldu, bestela, opor-garaian erremediorik gabe ozeanoak edo kontinenteak edo biak hegazkinenez zeharkatzeko geure buruari sortu diogun obligazioa, ezpada, hein batean, uda-hondarreko bilkurretan gure abuztua beste zenbaiten abuztu sinpleegia baino interesgarriagoa izan dela sentitzea.

Nola esplikatu, bestela, lehenengo aldiarekin nahikoa izanda ere, bigarrenegun egin zenuela, behinola, Behobia-Donostia lasterketa, sentitzen zenuelako halako presio bat bizimodu kirolzalearekin jarraitzen zenuela demostratzeko.

Nola onartu genitalak erabat depilatzeko mandatua, alde batera utziz ohetikidearen ustezko gustu sexualaren atzean dagoen pornografia-eredu indarke-riazkoa –eta pederastia, emakumeok ileak ditugu

Zer unibertsala den ahaztua izateko beldurra eta, neurri berean, nola desio dugun guztiok noizbait norbait gurekin akordatzeko zerbait txukun samar egin-esan-sortu-lortu dugula sinestea...

aluan!–, ezpada goitik behera betetzeko gizonezko zenbaitek diseinatutako emakume txortagarriaren paradigma eta, beraz, haien onespenean desiratua sentitzeko.

Gaur arraunaz idaztera nentorren, Kontxaz eta ligaz. Arraunlari emakumeek, dena irabazita ere, ezer irabazi ez duten gizonezkoen aldean jasotzen duten txalo-kopuru eskasaz; minutuko ohoretxoek. Baina, zer den egoa: segituan bistaratzen du loa kentzen digun hura. •